

## **LASARTE-ORIAKO BIDEGORRI SAREAREN HOBEKUNTZA**

Hankak eta bizikleta, ibilgailu osasungarriak eta eraginkorrak izan ezezik onuragarriak ere badira ikuspuntu ekonomiko batetik eta ingurunearen babesaren aldetik.

Hori dela eta, bizikleta hiriguneetan mugitzeko aukerarik sendoenetako batean bihurtu da gaur gaurkoz, eta horrela pentsatzen dute europarren %73ek zeintzuk bizikleta kotxerearen aldean lehentasunezko tratua izan beharko lukeela pentsatzen duten.

Izan ere, European kotxez egiten diren desplazamenduen erdiek, 5Km baino gutxiago dute (ordu erdi bat baino gutxiago bizikletan). Beraz, benetako aukera baten aurrean gaude herrietan bertan edo (zenbait kasutan) herrien artean mugitzeko eta batzuetan, oso aukera erabilgarria izan daiteke garraio publikoarekin konbinatuta.

Bestalde ukaezinak dira osasunarengan bizikletaren praktikak dituen onurak.

Hala eta guztiz ere, bukatu gabeko Bidegorri-sareak, dagoeneko esistitzen iren bidegorrien erabilera okerrak eta mantenu faltak ozotoputzen dute bizikletaren erabilera Lasarte-Orian.

Horregatik guztiagatik, EAJ udal taldeak udalbatzar honek ondorengo erabakiak hartu ditzala proposatzen du:

1. Ingurunean eta osasunean dituen abantailengatik, aisia eta garraiorako bitarteko bezala bizikletak duen onura publikoa aitortzea.
2. Eremu publikoak bizikletaren trafikora egokitzeko neurriak hartzeko eta onartzeko beharra kontsideratzea eta aintzat hartzea, bidegorrietatik segurtasunarekin eta modu eroso batean ibiltzeko herritarrok dugun eskubideak bermatu ahal izateko. Neurri horiek, seinaleztapen egoki bat, eremu publikoarentzako diseinu arauak, eta beharrezkoa denean, txirrindulariei zuzendutako espazio bereizi bat erreserbatzea ere jaso beharko lukete.
3. Neurri horiek, garraiorako udal eta bailara planetan, Arau Subsidiarioetan eta Udal Agenda 21ean jasotzea.
4. Udalbatzarrak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio buka ditzala bidegorrien sare forala Lasarte-Oriako sare munizipalarekin lotzeko konexio guztiak.
5. Udalbatzarrak udal-gobernuari eskatzen dio jarrai dezala gaur egungo bidegorri-sare munizipala lurralde osora zabaltzen, garapen urbanoen eta aurrekontuetako ahalbideen arabera.

6. Udalak erabaki hauek Gipuzkoako Foru Aldundiari helaraziko dizkio.
7. Bizikletak aisia, osasuna eta garraiorako bitarteko moduan bizikletak duen onura publikoa aitortuta eta onura horiek guztiak lasarteoriatar zein gipuzkoar zabaltze aldera, Lasarte-Oriako Udal Batzarrak Gipuzkoako Aldundiari irmoki eskatzen dio 2016ko aurrekontuetan bidegorrientzako partidak lehenestea, handitzea eta edozein kasutan, murrizketak ez egitea.